

3. KONPROMISOA (HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ILAB-A): GAUZATZE-PROZESUARI BURUZKO EBALUAZIO PARTEKATUA

**2018-2020 ALDIRAKO OGP EUSKADI EKINTZA-
PLANAREN esparruan eginiko ebaluazioa**

Azaroko lehendabiziko astean eginiko ikerketa

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 15a

AURKIBIDEA

A. SARRERA

B. HELBURUAK ETA PROZESU METODOLOGIKOA

1. Helburua eta planteamendu metodologikoa
2. Prozesu metodologikoa eta azterketa-lagina

C. 3. KONPROMISOAREN GAINEKO EBALUAZIO PARTEKATUAREN EMAITZAK

1. Esleituriko funtzioen ebaluazioa
2. Gauzatze-prozesuaren ebaluazioa
3. Prozesuko emaitzen ebaluazioa

SARRERA

OGP Euskadi 2018-2020 Plana ebaluatzerako eta 2020-2022 aldirako plan berria definitzerako prozesuetan, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak laguntza behar du **3. konpromisoaren (Herritarren parte-hartzearen iLaba) gaineko ebaluazio partekatua egiteko.**

Txosten honen helburu nagusia OGP Euskadiren 3. konpromisoaren autoebaluazioaren emaitzak aurkeztea da, eta konpromisoaren hiru partaidetza-mailetan ebaluazioa egiten lagundu duten eragileak hartzen ditu barnean: 3. konpromisoaren taldea, pilotatze-taldeak eta foro irekia.

Zehazki, alderdi hauek jorratu dira:

- 1. Jardunaren gaineko ebaluazioa, esleituriko funtzioei dagokienez**
- 2. Gauzatze-prozesuaren ebaluazioa**
- 3. Prozesuko emaitzen ebaluazioa**

- **Teknikoa:** *norberak euskarri elektronikoan beteriko inkesta*
- **Landa-lana egindako data:** *2020ko urriaren 8tik 31ra*
- **Unibertsoa:** *169 PERTSONA*
- **Lagina:** *44 galdetegi egin dira erabat, eta osatu gabeko **beste 7 galdetegi gehitu dira**, zeinak galdetegiko 10. galderaraino iritsi baitziren gutxienez.*
 - *Beste 58 pertsonak partzialki bete dute galdetegia, baina ez dira baliozkotzat jotzen, ez baitute izan aurrerapen esanguratsurik emaitzetan.*
- **Partaidetza-tasa:** *% 26*

Talde partaidea (%)

Grupos de pilotaje	universo	muestra	tasa de participación
FORO ABIERTO	123	25	20,3%
GRUPO DE COMPROMISO 3	27	15	55,6%
GRUPO PILOTAJE	18	11	61,1%
Total general	168	51	30,4%

EMAITZAK

1. Esleituriko funtzioen ebaluazioa
2. Gauzatze-prozesuaren ebaluazioa
3. Prozesuko emaitzen ebaluazioa

EMAITZAK

1

Esleituriko funtzioen ebaluazioa

I. 3. KONPROMISOKO TALDEARI esleituriko funtzioen ebaluazioa

II. PILOTATZE-TALDEEI esleituriko funtzioen ebaluazioa

III.FORO IREKIARI esleituriko funtzioen ebaluazioa


3. KONPROMISOKO TALDEARI esleituriko funtzioen ebaluazioa

- ✓ Planaren gobernantza-esparruak hainbat funtzio ematen dizkie ebaluazioan parte hartzen duten eragile bakoitzaren talde edo foroei.
- ✓ 3. konpromisoko taldeari esleitutako funtzioei dagokienez, guztiek balorazio oso ona izan dute garapenari dagokionez, baina parte-hartzaileen % 40 eta % 60 inguruk dio badela nolabaiteko hobekuntza-marjina esleitutako funtzio guztiak gauzatu arte.
- ✓ 3. konpromisoko taldearen funtzioen balorazioan ageri diren aldeak aztertuta, «Konpromisoaren garapenari buruz jakitea» eta «betearazleak inspiratuko dituzten proposamenak egitea» dira guztiz eginda geratu izanaren pertzepzio txikiena duten funtzioak; **hori bai, betetze-maila handiaren pertzepzio-esparru orokor baten barruan betiere.**

3. KONPROMISOKO TALDEARI ESLEITUTAKO EGINKIZUNAK BETETZEARI EDO EZ BETETZEARI BURUZKO BALIOESPENA (%)

GUZTIRA

HANDIENETIK TXIKIENERA ORDENATURIK




PILOTATZE-TALDEEI esleituriko funtzioen ebaluazioa

- ✓ Pilotatze-taldee esleituriko funtzioen artean, iritzi desberdinak ageri dira funtzio horiek betetzeari dagokionez, funtzio gehienek betetze-maila nabaria ageri baldin badute ere.
- ✓ Lehen mailan, nabarmendu behar da behar bezala garatu direla «Kontsultatua izateko» eta «kontrastatzeko» funtzioak.
- ✓ Gainerako funtzioetan batez besteko puntuazioa nabarmena izan den arren, pertsona batzuek –zehazki, hamar lagunetik batek– uste dute ez direla beharrezko diren proposamenak egin; hamarretik hiruk ez dute parte hartu autoebaluazioan, eta batek bakarrik uste du «esperimentatzea eta laguntzea» guztiz gauzaturiko funtzioa dela.

PILOTATZE-TALDEEI ESLEITURIKO EGINKIZUNAK BETETZEARI EDO EZ BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA (%)

HANDIENETIK TXIKIENERA ORDENATURIK

GUZTIRA




FORO IREKIARI esleituriko funtzioen ebaluazioa

- ✓ **Foro irekiari esleituriko funtzioen** ebaluazioari dagokionez, huraxe da hobetzeko arlo gehien ageri duen parte-hartze maila. Ebaluazioak positiboa izaten jarraitzen du, nahiz eta gogobetetze-maila jaitsi, eta esleitutako funtzioak garatu ez direla uste duten pertsonen kopurua handitu.
- ✓ Gauzatze-mailari dagokionez, «proposatzea» da puntuaziorik txikiena jasotzen duen funtzioa, bost lagunetik batek ez baitu gainditzen. Beste aldean, berriz, «kontsultatua izatea» dago, eta % 15 inguruk ez dute gainditu egiteko horren betetze-maila.

FORO IREKIARI ESLEITUTAKO EGINKIZUNAK BETETZEARI EDO EZ BETETZEARI BURUZKO BALIOESPENA (%)

HANDIENETIK TXIKIENERA ORDENATURIK

GUZTIRA



EMAITZAK

2

Gauzatze-prozesuaren ebaluazioa

- I. 3. KONPROMISOKO TALDEAREN** eginkizunak betetzeari buruzko balioespena (%)
- II. PILOTATZE-TALDEEN** eginkizunak betetzeari buruzko balioespena (%)
- III. Informazioaren gardentasun-mailaren** balioespena
- IV. Gardentasunean laguntzeko teknologia berrien erabileraren** balioespena
- V. Partaidetza-prozesuen** egokitasunaren balioespena
- VI. Parte-hartzaileen** egokitasunaren balioespena
- VII. Herritarren parte-hartzea txertatzearen** balioespena
- VIII. Ahalegin pertsonalaren eta talde sustatzaileen lanaren** balioespena
- IX. 3. KONPROMISOAREN** balioespen orokorra


3. KONPROMISOKO TALDEAREN eginkizunak betetzeari buruzko balioespena

- ✓ Oro har, nabarmentzekoa da 3. konpromisoko taldeak **gogobetetze-maila handia** duela aztertutako arlo guztietan.
- ✓ Hiru dira 3. konpromisoko taldeko partaideek **gehien nabarmentzen dituzten elementuak**: «Lan-dinamika antolatua izan da», «eduki baliotsuak sortu dira» eta «lan-dinamikak konpromisoa behar bezala betetzen dela zaintzeko balio izan du».
- ✓ Balioespen positiboen esparruan, esparru hauetan agertu dira hobetzeko aukera handienak: lankidetzarako aukera, kontuak ematea eta konpromisoaren gauzatzea birbideratzeko aukera.

3. KONPROMISOKO TALDEAREN EGINKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO BALIOESPENA (%)

HANDIENETIK TXIKIENERA ORDENATURIK


GUZTIRA



PILOTATZE-TALDEEN eginkizunak betetzeari buruzko balioespena

- ✓ Orain arte adierazitakoaren ildotik, pilotatze-taldeetako partaideek **gogobetetze-maila handia ageri dute** eginkizunak betetzeari dagokionez.
- ✓ Egia da gogobetetze-maila handia dutela jardueraren beraren garapenarekin, baina **hasieran definitutako kronograma betetzeak eskuratu du balioespen txarrena**. Kronograma beterik ikusi ez duten pertsonen artean, guztiek COVID-19aren ondoriozko alarma-egoerari egotzi diote.


PILOTATZE-TALDEEN EGINKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO BALIOESPENA (%)
HANDIENETIK TXIKIENERA ORDENATURIK



Informazioaren gardentasun-mailaren balioespena



- ✓ Gardentasuna da 2018-2020 aldiko Ekintza Planean adostutako lan egiteko printzipioetako bat. Gardentasun-maila ebaluatzeko, informazioak gardentasunari dagokionez izan behar dituen zenbait ezaugarri kontsultatu dira. Nabarmentzekoa da, oro har, **informazioaren gardentasunak balioespen positiboak izan baditu ere, foro irekian parte hartu dutenek gardentasunari eman dizkiotela, hain justu, balorazio apalenak** (beste bi taldeekin alderatuta).
- ✓ Informazio osoa, eskuragarria eta zehatza izan dira **balorazio gorena jaso duten ezaugarriak** (eta, beraz, gehien inplementatu direnak). Balioespen epelen barruan, berriz, hauek izan dira **balorazio apalena izan duten ezaugarriak**: informazio ulergarria, kontuak emateko erabilgarritasuna eta behar den unean eskuratzeko tasuna.



P6. Informazioaren gardentasun-maila neurtu behar dugu; balioztatu 1etik 10era zenbateraino bete diren honako baieztapen hauek:
Oinarria: lagin osoa (51 kasu).




Gardentasunean laguntzeko teknologia berrien erabileraren balioespena



- ✓ Erabilitako tresnek informazioa ez ezik gardentasuna ere bultzatu behar dute. Horregatik, **teknologia berrien erabilerari buruz galdetu da, gardentasuna bultzatzeko.**
- ✓ Teams tresnak izan ezik (% 22k ez du erabili), tresna guztiek **erabilera-portzentaje nabarmena izan dute** parte-hartzaileen aldetik.
- ✓ Proposatutako tresnek informazioa emateko funtzionatu dute, eta ez hainbeste proposamenak egiteko. Webguneak, sare sozialek eta halako kanalek proposamenak jasotzeko asmoa izan balute, erantzunetan jaso denaren arabera, ez zuketan ondo beteko beren funtzioa.

GARDENTASUNA LAGUNTZEKO ETA ERRAZTEKO TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERAREN BALIOESPENA (%)
HANDIENETIK TXIKIENERA ORDENATURIK



BATEZBESTEKOA LANTALDEAREN ARABERA			
GUZTIRA	3. KONPROMISO-TALDEA	PILOTATZE-TALDEAK	FORO IREKIA
7,80	8,38	7,44	7,66
7,75	8,60	8,10	7,60
7,65	7,40	8,20	7,46
7,51	8,29	7,10	7,50
7,20	7,18	7,67	7,25
6,98	7,21	7,44	6,91
6,47	6,58	6,60	6,41
6,34	5,67	7,10	6,58

Baliorik handiena
Baliorik apalena


P8. Balioztatu 1etik 10era honako baieztapen hauek (1 erabat desados eta 10 erabat ados). Erabili ez baduzu, adierazi EZ DAGOKIO (ED)
Oinarria: lagin osoa (51 kasu).



Partaidetza-prozesuen egokitasunaren balioespena

- ✓ Parte hartzeko espazioen eta prozesuen egokitasunari dagokionez, oro har, egokitzat jo dira espazioak eta prozesuak. Hala ere, egia da baloraziorik onenak 3. konpromiso-taldeko partaideenak direla, eta txarrenak, berriz, foro irekikoak.
- ✓ Parte-hartze prozesuan goren balioztatutako elementuak horretarako gaitutako espazioak dira (irisgarritasuna, antolaketa), bereziki 3. konpromisoko taldeen eta pilotatze-taldeen partetik.
- ✓ Aldiz, balioespenik apalena duen elementua, bereziki pilotatze-taldeko partaideen artean, epeak egokitzeari buruzkoa da (parte hartu aurretik eta parte hartu bitartean).

PARTAIDETZA-PROZESUEN ETA -GUNEEN EGOKITASUNAREN BALIOESPENA (%)
HANDIENETIK TXIKIENERA ORDENATURIK



BATEZBESTEKO LANTALDEAREN ARABERA

GUZTIRA	3. KONPROMISO-TALDEA	PILOTATZE-TALDEAK	FORO IREKIA
7,81	8,60	8,00	7,66
7,60	8,27	7,70	7,48
7,58	8,14	7,64	7,55
7,53	8,07	7,55	7,52
7,31	7,93	6,91	7,39


Baliorik handiena
Baliorik apalena

P9. Zer balioespen egingo zenuke elementu hauei buruz, parte hartzeko eskaintzen duten egokitasunari dagokionez?
Oinarria: lagin osoa (51 kasu).


Parte-hartzaileen egokitasunaren balioespena

- ✓ Parte hartzeko espazioen eta prozesuen ondoren, jarraian, dinamika bakoitzean **parte hartu duten eragileen eta pertsonen egokitasuna** balioetsiko da.
- ✓ Prozesuan parte hartu duten pertsonen egokitasunari dagokionez, **gehienek nahiko egokitzat jotzen dute** atal dinamikoetan **parte hartu duten pertsonen hautaketa** (% 56,9): % 15ek gutxienez onargarritzat jotzen du egokitasuna, eta % 25ek, berriz, guztiz egokitzat.
- ✓ Lantaldeen arteko aldeak oso txikiak dira, eta pilotatze-taldeetako pertsonek dute gogobetetasun handiena.

PROZESUAN PARTE HARTU DUTENEN EGOKITASUNAREN BALIOESPENA (%)



LANTALDEAREN ARABERA




P10. Ezagutu ahal izan dituen guneetan parte hartu duten pertsonen dagokienez (foro erregularra, konpromiso-taldea, pilotatze-taldeak, foro irekiak), uste du egokiak izan direla.

Oinarria: lagin osoa (51 kasu).

Herritarren parte-hartzearen balioespena

- ✓ Seguruenik, **herritarren parte-hartzea prozesuan txertatzea** da dokumentu honetan aztertutako guztien artetik **balioespen apalena jaso duen elementua**. Pilotatze-taldeetan parte hartzen duten pertsonak dira talderik kritikoena herritarrek prozesuan integratzeari dagokionez. Jarduera-esparru gisa, adierazi behar da azken faserako aurreikusita zeudela pilotuen partaidetza-prozesuak, eta, hein handi batean, azken fase hori konfinamenduko hilabeteetan izan zela.
- ✓ «Informatu eta komunikatu» eta «iritzia eman eta kontsultatu» dimentsioek ageri dute **integrazio-maila handiena** (nahiz eta pertsonen % 15ek eta % 10ek gainditu ez, hurrenez hurren). **Balioespen apalena duen dimentsioa**, eta, hortaz, prozesuan gutxien integraturikoa «**erabaki-kudeatu**» da (bostetik batek ez du gainditzen, gutxi gorabehera).

HERRITARREN INTEGRAZIOA BALIOESTEA HONAKO ESPARRU HAUETAN (%)
HANDIENETIK TXIKIENERA ORDENATURIK



BATEZBESTEKOA LANTALDEAREN ARABERA

GUZTIRA	3. KONPROMISO-TALDEA	PILOTATZE-TALDEAK	FORO IREKIA
7,10	7,25	6,50	7,14
7,05	7,00	6,83	7,19
6,89	7,22	6,33	7,00
6,78	6,70	6,33	6,96
6,14	6,00	5,83	6,40

Baliorik handiena


Baliorik apalena

P11. Eta, herritarren parte-hartzeari dagokionez, parte-hartze hori kontuan hartu da prozesuaren faseetan, hainbat egitekotarako...
Oinarria: lagin osoa (51 kasu).

Ahalegin pertsonalaren eta talde sustatzaileen lanaren balioespena


- ✓ Azkenik, aurreko guztia gauzatzeko behar den **inplikazio- eta ahalegin-maila neurtzeko**, galdetu da ea zer ahalegin egin den, bai norbanakoen aldetik, bai talde sustatzaileen aldetik, zegozkien zereginak gauzatzeko.
- ✓ **Norbanakoen ahaleginari** dagokionez, parte-hartzaileen % 20k uste du dedikazio handiagoa izan lezaketela (3. konpromiso-taldean eta foro irekian), baina gehienek uste dute **ahalegina onargarria** dela (% 72,5) —hau da, egokia eta behar den neurrikoa—.
- ✓ **Talde sustatzaileak egindako ahaleginaren** pertzepzioari dagokionez, parte-hartzaile gehienek **onargarritzat** jo dute (% 86,3).

EGINKIZUNAK GAUZATZEKO AHALEGIN PERTSONALAREN BALIOESPENA (%)



- El esfuerzo ha sido pequeño (podría tener una mayor dedicación) / Ahalegina txikia izan da (dedikazio handiagoa izan nezakeen)
- El esfuerzo ha sido aceptable (la dedicación era la necesaria, ni más ni menos) / Ahalegina onargarria izan da (beharrezko dedikazioa izan dut, ez handiagoa, ez txikiagoa)
- El esfuerzo ha sido excesivo (debería haber tenido una menor dedicación) / Ahalegina gehiegizkoa izan da (dedikazio txikiagoa izan beharko nukeen)

EGINKIZUNAK GAUZATZEKO TALDE SUSTATZAILEAREN BALIOESPENA (%)



- El esfuerzo ha sido insuficiente (podrían haber tenido tener una mayor dedicación) / Ahalegina ez da nahikoa izan (dedikazio handiagoa izan zezaketen)
- El esfuerzo ha sido aceptable (la dedicación ha sido la necesaria, ni más ni menos) / Ahalegina onargarria izan da (beharrezko dedikazioa izan dute, ez handiagoa, ez txikiagoa)
- El esfuerzo ha sido excesivo (deberían haber tenido una menor dedicación) / Ahalegina gehiegizkoa izan da (dedikazio txikiagoa izan beharko zuketzen)

P12. Eta, zer-nolako ahalegin pertsonala esango zenuke izan duzula parte hartu duzun egitekoetan?


P13. Eta, zer-nolako ahalegin pertsonala esango zenuke izan dutela talde sustatzaileek parte hartu duten egitekoetan?

Oinarria: lagin osoa (51 kasu).


3. KONPROMISOA gauzatzeko prozesuaren balioespen orokorra

- ✓ Honako grafiko hauek, alde batetik, 3. konpromisoaren garapenaren egungo egoera adierazten dute labur-labur, eta, bestetik, hasieran markatutako mugarren betetze-maila.
- ✓ Parte-hartzaileen % 70ek uste du 3. konpromisoa gutxienez «funtsean» garatu dela, baina lautik batek uste du garapen mugatua izan duela.
- ✓ Hala ere, hasieran markatutako mugariak kontuan hartuta, 10etik batek soilik uste du markatutako mugari horietako gutxi bete dituela.

3. KONPROMISOAREN GAUZATZE-EGOERA (%)



HASIERAN MARKATUTAKO MUGARRIEN BETETZE-MAILA (%)



P14. Oro har, zure ustez, zein izan da konpromisoaren garapena?
P15. Eta, zure ustez, zenbateraino bete dira hasieran ezarritako helburuak edo mugariak?
Oinarria: lagin osoa (51 kasu).

EMAITZAK

3

Prozesuko emaitzen ebaluazioa


- I. Eskuratutako **produktuekin izaniko gogobetetzea**
- II. Eskuratutako **produktuen kalitatearen balioespena**
- III. Eskuratutako **produktuen berrikuntzaren balioespena**
- IV. **3. KONPRROMISOAK** eskuratutako produktuen gainean izaniko **inpaktuaren balioespena**
- V. **3. KONPRROMISOAREN** prozesuarekin eta prozesurako izaniko **gogobetetze orokorra**

Eskuratutako produktuekin izaniko gogobetetze-maila



- ✓ Prozesuaren emaitzak hainbat gakoren arabera balioetsi behar dira; horietako bat **lortutako produktuekiko gogobetetze-maila** da. Lortutako 4 produktuetatik 3k antzeko gogobetetasun-balioespenak dituzte, eta laugarrenak, «migratzaileen parte-hartzea», nabarmen apalagoa eskuratu du (foro irekian parte hartzen duten pertsonak dira gogobetetze-maila txikiena dutenak, gainerakoekin alderatuta).
- ✓ Hurrengo grafikoan agertzen diren lehen hiru produktuetan, antzeko gogobetetasuna adierazi da hiru kasuetan. Pertsona gehienak gogobetetze-maila ertain-altuan daude (% 75 inguru). «Migratzaileen parte-hartzeak» ageri du gogobetetasun-maila apalena, batez ere foro irekian parte hartzen dutenen artean, baina konpromiso-taldeak goren balioztatutako bi pilotuetako bat da. Eta konfinamenduaren hilabeteek asko baldintzatu dute haren garapena, huraxe izan baitzen abian jartzen azkena.

ESKURATURIKO PRODUKTUEKIN IZANIKO GOGOBETETZE-MAILA (%)
HANDIENETIK TXIKIENERA ORDENATURIK



BATEZBESTEKOA LANTALDEAREN ARABERA

GUZTIRA	3. KONPROMISO-TALDEA	PILOTATZE-TALDEAK	FORO IREKIA
7,53	8,00	8,20	7,43
7,34	7,38	8,00	7,24
7,28	7,50	7,89	7,00
6,87	7,88	7,17	6,38

Baliorik handiena

Baliorik apalena


P16. Has gaitezen eskuraturiko produktuen bidez lortutako emaitzak aztertzen. Balioztatu 1etik 10era eskuraturiko produktu bakoitza (batere ez pozik eta erabat pozik, hurrenez hurren)
Oinarria: lagin osoa (51 kasu).



Eskuratutako produktuen kalitatearen balioespena

- ✓ Lortutako produktuekiko gogobetetasunari dagokionez, **produktu horien kalitatearen balioespena** bat dator gogobetetzearekin berarekin. Pilotatze-taldeetan parte hartzen dutenen balioespenak gainerakoenak baino nabarmen altuagoak izan dira; aldiz, foro irekian emandako balorazioak nabarmen apalagoak dira.
- ✓ **Produktuen kalitateari dagokionez, guztiek oso antzeko balioespenak dituzte**, nahiz eta foro irekiak balorazio nabarmen txikiagoa eman dion «migratzaileen parte-hartzea» pilotuari.

ESKURATURIKO PRODUKTUEN KALITATEAREN BALIOESPENA (%)
HANDIENETIK TXIKIENERA ORDENATURIK



BATEZBESTEKOA LANTALDEAREN ARABERA


GUZTIRA	3. KONPROMISO-TALDEA	PILOTATZE-TALDEAK	FORO IREKIA
7,74	8,20	8,80	7,59
7,74	8,13	9,00	7,55
7,44	7,88	8,40	7,30
7,00	7,88	7,40	6,55

Baliorik handiena

Baliorik apalena

Eskuratutako produktuen berrikuntzaren balioespena


- ✓ Emaizten atalean balioetsi beharreko beste elementu bat 3. konpromisoaren ondorioz **lortutako produktuen berrikuntza** da.
- ✓ **Berrikuntza-mailaren arabera gehien balioetsitako produktuak** hauek izan dira: «Thinking Fadura pilotuaren garapena eta exekuzioa» eta «iLabaren kontzeptualizazioa».
- ✓ **Apalen balioztatutako produktuen artean**, berriz, «migratzaileek parte hartzeko proiektu pilotua» eta «iLab gobernantza-eredua» ageri dira.



3. konpromisoak eskuratutako produktuen gainean izaniko inpaktuaren balioespena




- ✓ Pilotuak gauzatzearen ondorioz aipatutako produktuez gainera, 3. konpromisoaren garapenak lankidetzaprozesuarekin lotura handiagoa duten beste produktu mota batzuk bultzatzen edo sustatzen ditu. Jarraian aurkeztuko ditugu.
- ✓ Prozesuari lotutako produktu guztiek antzeko balorazioak lortu badituzte ere, inpakturik txikiena «Administrazioaren eta herritarren arteko harremanen hobekuntzan» lortu da. Hau da, 3. konpromisoak eragin txikiagoa izan du azken produktu horretan.




3. konpromisoaren prozesuarekin eta prozesurako izaniko balioespen orokorra

- ✓ Emaizten ebaluazioa amaitzeko, hurrengo grafikoetan ikusten da **zer ekarpen egiten dion 3. konpromisoak** gobernuen irekierari eta prozesuarekiko gogobetetze orokorrari.
- ✓ **Gobernuen irekierari** egindako ekarpenari dagokionez, parte-hartzaile gehienek adierazi dute **lagungarria izan dela**, baina **ez ezer funtsezkoa lortzeko (% 60,4)**. Zer taldetako kideak diren, nabarmendu behar da 3. konpromisoko taldeko **pertsonen % 20k** adierazi duela **ez dela ezer aldatu**.
- ✓ **Gogobetetasun orokorra** nabarmen handia da lau parte-hartzailetatik hirutan.

3. KONPROMISOAK GOBERNUEN IREKIERARI EGINIKO EKARPEN-MAILA (%)



3. KONPROMISOAREN PROZESUAREKIN IZANIKO GOGOBEKETZE OROKORRA (%)



P14. Oro har, zure ustez, zein izan da konpromisoaren garapena?

P15. Eta, zure ustez, zenbateraino bete dira hasieran ezarritako helburuak edo mugarrak?

Oinarria: lagin osoa (51 kasu).

ONDORIOAK

A. ESLEITURIKO FUNTZIOEN BALORAZIOARI DAGOKIONEZ...

1. Parte-hartze handia ebaluazioan.

- Parte-hartze hori handiagoa izan da konpromisoaren garapenean etengabe eta jarraian parte hartu duten pertsonen artean (konpromiso-taldea eta pilotatze-taldeak), eta txikiagoa partaidetza puntuala izan denean (foro irekia).

2. Balioespen handia izan da taldeen funtzioak betetzeari buruz:

- Oso handia konpromiso-taldeari esleitutako funtzioen kasuan (>8).
- Nahiko handia izan da pilotatze-taldeen kasuan, baina hobekuntza-helburuak ezartzeko aukera dago bi alderditan: esperimentazioan eta lankidetzan, eta autoebaluazioan parte hartzean (oharra: inkesta honen ondoren egin da autoebaluazio hori).
- Hobekuntza-estrategiak ezartzeko premia handiagoa, Foro Irekiari esleitutako funtzioak eraginkortasunez betetzeko, batez ere proposamenen alorrean, eta ez hainbeste informazioaren esparruan. Argi dago testuinguru soziosanitarioak baldintzatu egin duela foroaren garapena baina, halaber, aukera ematen duela etorkizunean egokitzeko eta hobetzeko.

B. GAUZATZE-PROZESUAREN EBALUAZIOARI DAGOKIONEZ

1. 3. konpromisoko taldearen jardueren garapenari buruzko balorazio onak jaso dira; hortaz, eutsi egin behar zaio dinamika horri.
2. Pilotatze-taldeek zailtasunak izan dituzte kronograma betetzeko, baina pertzepzio orokorra ona da (10etik 7 puntu).
3. Informazioaren, haren kalitatearen eta irisgarritasunaren gardentasunari buruzko pertzepzio interesgarria jaso da. Hala ere, bada tarterik hobetzen jarraitzeko:
 - Oso handia konpromiso-taldeari esleitutako funtzioen kasuan (>8). Oro har, foro irekirantz;
 - zehazki, informazioa behar den unean eskuratzeari dagokionez,
 - era berean, hobetzen jarraitu behar da, informazioaren erabilgarritasuna areagotzeko, kontuak emateko bitarteko gisa.
4. Teknologiaren erabilerari dagokionez:
 - Proposatutako tresnek hobeto funtzionatu dute informazioa emateko, eta ez hainbeste proposamenak egiteko. Webguneak, sare sozialek eta halako kanalek proposamenak jasotzeko asmoa izan balute, erantzunetan jaso denaren arabera, ez zuketan ondo beteko beren funtzioa.

Testuinguru soziosanitario berria dela eta, etorkizunean webgunea eta sare sozialak erabiltzea aurreikusten bada erabilera propositiboago horretarako, berrikusi egin beharko lirateke.

5. Aldea dago lortutako produktuen eta lau pilotuen kalitatearen arteko balorazioan. Edonola ere, ona izan da pertzepzio orokorra.
6. Hobetzeko arloei dagokienez, herritarren eta administrazioaren arteko harremanak funtsezkoak dira ahaleginak ardazteko; izan ere, oro har, arlo horrek berak erakutsi du hobetzeko tarte handiena.
7. Informazioaren, haren kalitatearen eta irisgarritasunaren gardentasunari buruzko pertzepzio interesgarria jaso da. Hala ere, bada tarterik hobetzen jarraitzeko:
 - Oso handia konpromiso-taldeari esleitutako funtzioen kasuan (>8). Oro har, foro irekirantz;
 - zehazki, informazioa behar den unean eskuratzeari dagokionez;
 - era berean, hobetzen jarraitu behar da, informazioaren erabilgarritasuna areagotzeko, kontuak emateko bitarteko gisa.

C. PROZESUAREN EMAITZEI DAGOKIENEZ...

1. Parte-hartzaileek lantalde guztietan pertzepzio ona dutela islatzen da.
2. Herritarren parte-hartzearen pertzepzio apalagoa, bereziki eztabaidarako eginkizunetan eta, batez ere, pilotatze-taldeetan.
3. Ez dago inplikaturako pertsonei ahalegin pertsonal handiegia eskatu izanaren pertzepziorik, eta, beraz, horrek ez du disuasio-elementu gisa jardun.
4. Oro har, 3. konpromisoa betetzearen pertzepzio handia dago (% 70,6k osorik edo funtsean garaturik ikusten du), handiagoa da pertzepzio konpromiso-taldean eta txikiagoa foro irekian.

5. Berrikuntza-mailari buruz:

- Pertzepzio ona jaso da gobernantza-eredutzat baliaturiko sistemari buruz.
- Balorazio negatiborik jaso ez arren, ez da horren ontzat jo iLabaren kontzeptualizazioa, ezta aurrekontu parte-hartzaileen pilotuaren garapena ere.

6. Lankidetza-trebetasunak garatzean nabaritu da inpakturik handiena.

- Aldiz, lankidetza-sareak sortzeko prozesuak jaso du inpaktuaren balorazio apalena. Balioetsi behar da ea osasun-testuinguruak lan autonomoagoa eta sareko lan txikiagoa ekarri duen, eta, ondorioz, pentsatu nola optimiza daitekeen berriz etorkizunean, besteak beste sarea sortzeko helburuz ipini baitzen iLaba abian.

7. Nolanahi ere, elkarrizketatutako pertsonen % 28,1ek uste du eredu horrek ekarpena egiten diola gobernuak irekitzeari.

Bistan denez, bide luzea geratzen da egiteko, baina bada aurrerapauso bat.